

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

**LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA
TEST GALDETEGIA (GAITEGI OROKORRAK)****A - EREDUA**

- 1. ZER SUSTATU BEHAR DUTE BOTERE PUBLIKOEK, 1978KO KONSTITUZIOAN EZARRITA DAGOENAREN ARABERA?:**
 - a. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna gizarteko kide guztientzat izateko inguruabar zehatzak.
 - b. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna Konstituzioa eta legeak errespetatuz herritarrei emateko inguruabar zehatzak.
 - c. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna ahalik eta handienak izateko inguruabar zehatzak.
 - d. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izateko inguruabar zehatzak.
- 2. ESPAINIAKO NAZIOA OSATZEN DUTEN NAZIONALITATE ETA HERRIALDEEI DAGOKIENEZ, ZER AITORTU ETA BERMATZEN DU KONSTITUZIOAK?:**
 - a. Autonomia eskubidea.
 - b. Horien arteko elkartasun eskubidea, baina ez autonomia eskubidea politikoki ulertua.
 - c. Askatasunez federatzeko edo konfederatzeko eskubidea.
 - d. Autodeterminazio askerako eskubidea.
- 3. KONSTITUZIOAK AITORTUTAKO BILTZEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ, IRAGANBIDE PUBLIKOETAKO BILEREN ETA KALE AGERRALDI EDO MANIFESTAZIOEN KASUAN:**
 - a. Ezingo dira inolaz ere debekatu, ezta arriskurik badago ere, baina, kasu horretan, segurtasun zerbitzu indartsua ezarri beharko da.
 - b. Ez da beharrezkoa izango agintariei aurretiko baimena eskatzea, ezta jardueraren berri ematea ere.
 - c. Pertsonentzako arriskua badakarte bakarrik debekatu ahal izango dira.
 - d. Debekatu egin ahal izango dira ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarriak badaude.
- 4. HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ:**
 - a. Oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.
 - b. Lehen mailako hezkuntza aukerakoa da.
 - c. Erdi mailako hezkuntza doakoa da.
 - d. Unibertsitateko hezkuntza doakoa da.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

5. ESKEA EGITEKO ESKUBIDEA:

- a. Konstituzioaren 30. artikuluan dago jasota, eta espainiar guztien onurarako dago aitortuta.
- b. Banaka erabili ahal izango da.
- c. Idatziz erabili ahal izango da, paper tinbratua erabilia.
- d. Ezin izango da taldean erabili.

6. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAK ESKUMEN ESKLUSIBOA DU GAI HAUETAN:

- a. Ingurumena eta ekologia.
- b. Nahitaezko desjabetzea, administrazio kontratu eta emakidak bere eskumenen barruan, eta Euskal Herriko administrazioaren erantzukizun sistema.
- c. Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

7. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, GAI HAUETAKO ZEIN DIRA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBOA?:

- a. Foru Organoen hauteskunde arauak, antolamendua, araubidea eta funtzionamendua.
- b. Obra eta Zerbitzuen Foru Plana prestatu eta onartzea, eta Tokiko Erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.
- c. Autogobernatzeko erakundeen antolamendua, araubidea eta funtzionamendua, betiere Estatutu honen arauen barruan.
- d. Ingurumena eta ekologia.

8. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, BERE LURRALDEAREN BAITAN LEGE BIDEZ GARATZEKO ETA BETEARAZTEKO ESKUMENAK DIRA:

- a. Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
- b. Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.
- c. Gizarte laguntza.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena

9. AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO ESTATUKO LEGEAK BETEARAZTEA GAI HONETAN:

- a. Gizarte laguntza.
- b. Foru Zuzenbide Zibila eta berezia gorde, aldatu eta garatzea.
- c. Probintzia eta udalerrietako ondasunen araubidea.
- d. Espetxe legedia

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

10. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIEN ANTOLAMENDU ARAUBIDEA APLIKATUKO ZAIE:

- a. 50.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
- b. 150.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
- c. Probintziako hiriburu, autonomietako hiriburu edo autonomia erakundeen egoitza diren udalerriei, bertako legebiltzarrek horrela erabakitzen badute, udal bakoitzaren ekimenez.
- d. 75.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.

11. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN TOKIKO GOBERNU BATZARRARI DAGOKIO:

- a. Ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak onartzea, organikoak barne, Udalbatza eta haren batzordeak arautzeko arauak salbuespen direla.
- b. Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea.
- c. Erregelamendu organikoak onartzea eta aldatzea.
- d. Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea.

12. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN, GOI ORGANOAK DIRA:

- a. Alkatea, alkateordeak, zinegotziak eta Udalbatza.
- b. Alkatea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideak.
- c. Alkatea, zinegotziak eta Udalbatzako idazkari nagusia.
- d. Alkatea, zinegotziak, Udalbatzako idazkari nagusia eta udaleko kontu-hartzaile nagusia.

13. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN, UDAL ADMINISTRAZIOAREN AURREAN AUZOTARREN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO, UDALBATZAK SORTUKO DU:

- a. Zerga kudeaketako organoa.
- b. Iradokizun eta erreklamazioetarako batzorde berezia.
- c. Ekonomiaren eta finantzen kudeaketarako organoa, Udalbatzari bere lanaren berri emango diona urteko txostenaren bidez.
- d. Ekonomia eta administrazio arloko erreklamazioak ebazteko organo berezia.

14. BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN XEDEA DA:

- a. Bilboko Udaleko Udalbatzaren, bertako batzordeen eta Tokiko Gobernu Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea.
- b. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita udaleko zinegotzien estatutua ezartzea ere.
- c. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita Udalbatza osatzen duten talde politikoaren estatutua ezartzea ere.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

15. **BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDIAREN ARABERA, TALDE POLITIKO BAT ERATZEKO ETA ATXIKITZEKO, BEHARREZKOA DA:**
- a. Gutxienez bi pertsona izatea.
 - b. Gutxienez lau pertsona izatea.
 - c. Gutxienez sei pertsona izatea.
 - d. Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
16. **BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZKETAK IZAN DAITEZKE:**
- a. Arruntak, ezohikoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
 - b. Arruntak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
 - c. Arruntak, izenezkoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
 - d. Arruntak, izenezkoak eta sekretuak.
17. **BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZUZENDARITZA ORGANOAK DIRA:**
- a. Alkatea.
 - b. Gobernu Batzordearen Bulegoko titularra.
 - c. Gobernu Batzordeko kideak.
 - d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
18. **BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK AKTAN JASO BEHARKO DIRA:**
- a. Eta zinegotzi idazkariak akta hori egin eta sinatuko du.
 - b. Eta Gobernu Batzordearen Bulegoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
 - c. Eta Aholkularitza Juridikoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
 - d. Eta Udalbatzako idazkari nagusiak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
19. **BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, FUNTZIO HAUETAKO ZEIN EZ DAGOKIO UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI?:**
- a. Udalbatzaren saioak deitzea eta horien buru izatea.
 - b. Udalbatzaren eta bertako batzordeen fede publikoa ematea.
 - c. Osoko bilkuraren ebazpenak jakinaraztea, argitaratzea eta betearaztea.
 - d. Udalbatzari eta batzordeei lege aholkularitza ematea.
20. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAK EZARTZEN DU ERREGELAMENDUZ PROZEDURAREN ZENBAIT BEREZITASUN EZARRI AHAL IZANGO DIRELA. ZERI BURUZKOAK IZAN DAITEZKE?:**
- a. Organo eskudunak.
 - b. Gaiagatik zehazki dagokion prozeduraren epeak.
 - c. Hasteko eta amaitzeko moduak.
 - d. Aurreko horiek denak, eta argitaratzeko modua eta eskatu beharreko txostenak.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

21. 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARENA, INDARREAN SARTU ZEN:

- a. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.
- b. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egunera.
- c. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 6 hilabetera.
- d. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera.

22. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, HAUEK DIRA PROZEDURA AMAITZEKO AUKERAK:

- a. Ebazpena eta atzera egitea.
- b. Gerora sortutako arrazoiengatik prozedurarekin jarraitzea materialki ezinezkoa izatea. Ematen den ebazpenak arrazoitua izan behar du beti.
- c. Eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea –ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu–, eta iraungitzat deklaratzeko.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira

23. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, NOIZ ERABAKI DEZAKETE PERTSONA FISIKOEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ KOMUNIKATZEA BEREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK BALIATZEKO?:

- a. Prozedura antolatzeke faseak irauten duen bitartean.
- b. Instrukzioa amaitu baino lehen.
- c. Entzunaldiaren izapidea egin baino lehen.
- d. Noiznahi.

24. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO GUZTI-GUZTIEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOEN FUNTSEZKO EZAUGARRI BAT BETE BEHAR DUTE:

- a. Teknikoki elkar trukatzeko modukoak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenak eta edozein erregistroan aurkeztutako agiriak telematikoki igortzea bermatzeko ere.
- b. Osotara elkarrengarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa bermatzeko, eta orobat erregistro-idazpenen eta edozein erregistroan aurkeztu diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko.
- c. Osotara elkarrengarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa dena delakoa izan arren.
- d. Normalizatuta egon behar dira.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

25. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 40. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK EMATEN DIRENETIK JAKINARAZTEKO DAGOEN EPEA?:**
- a. Zazpi egun.
 - b. Hamar egun.
 - c. Hamabost egun.
 - d. Hogeï egun.
26. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, PERTSONA JURIDIKOAK, ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEN EDOZEIN IZAPIDETARAKO, BEHARTUTA EGONGO DIRA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIN HARREMANA IZATERA:**
- a. Bitarteko elektronikoen bidez, lege batek hala eskatzen duenean.
 - b. Bitarteko elektronikoak erabiliz edo ez.
 - c. Bitarteko elektronikoen bidez, nahitaez.
 - d. Bitarteko elektronikoen bidez, arauz garatzen denean.
27. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 77. ARTIKULUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN INSTRUKZIO-EGILEAK FROGALDI BAT HASTEA ERABAKITZEN BADU, EGOKI DERITZON FROGA GUZTIAK EGIN AHAL IZATEKO, EPEA EZINGO DA IZAN:**
- a. Hogeï egun baino gehiagokoa eta hamar baino gutxiagokoa.
 - b. Hogeita hamar egun baino gehiagokoa eta hamar baino gutxiagokoa.
 - c. Bi hilabete baino gehiagokoa eta hilabete baino gutxiagokoa.
 - d. Hiru hilabete baino gehiagokoa eta hamabost egun baino gutxiagokoa.
28. **EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEK HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:**
- a. Nagusi hurrenen eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dagokien administrazio-unitateko xedeei, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, eta, batez ere, beren mendekotasun hierarkikoari eta dagozkien eskuduntza, eginbehar eta erantzukizunei buruzkoa.
 - b. Nagusi hurrenen eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dagokien administrazio-unitateko xedeei, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, baina beren mendekotasun hierarkikoa eta dagozkien eskuduntzak, eginbeharrak eta erantzukizunak kontuan hartu gabe.
 - c. Nagusi hurrenen eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dagokien administrazio-unitateko xedeei, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, eta, batez ere, beren independentzia hierarkikoari eta dagozkien eskuduntza, eginbehar eta erantzukizunei buruzkoa.
 - d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

- 29. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 163. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KARRERAKO EDO BITARTEKO FUNTZIONARIOEK, BALDIN ETA PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEN BADITUZTE BESTE EDOZEIN ADMINISTRAZIO PUBLIKOTAN:**
- a. Ordaindu gabeko baimena jasoko dute hautaketa-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duen bitartean. Nolanahi ere, sartu nahi duten administrazio horren kontura ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.
 - b. Ordaindutako baimena jasoko dute hautaketa-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duen bitartean. Nolanahi ere, sartu nahi duten administrazio horren kontura ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.
 - c. Ordaindu gabeko baimena jasoko dute hautaketa-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duen bitartean, eta bateraezina izango da sartu nahi duten administrazio horren kontura jasotzeko eskubidea duten ordainsariekin.
 - d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
- 30. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 171. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA:**
- a. Euskal enplegatu publikoek zorrotz bete behar dute indarrean dauden legeetan jarritako bateraezintasun-araubidea.
 - b. Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera bete dezaten, ez da berariazko ebaluaziorik egin beharko aurrez, eta ez da bateragarritasun-baimenik beharko.
 - c. Euskal enplegatu publikoek ezin izango dute inolaz ere jarduerarik bete sektore publikoan edo pribatuan.
 - d. Edonola ere, euskal enplegatu publikoek jarduera bete ahal izango dute sektore publikoan edo pribatuan.
- 31. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 120. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTZEPTU HAUEN ARABERA ORDAINDUKO DIETE LANA FUNTZIONARIOEI:**
- a. Oinarrizko ordainsariak, osagarriak eta aparteko ordainsariak.
 - b. Oinarrizko ordainsariak eta hiru urtekoak.
 - c. Ordainsariak eta zerbitzuagatiko kalte-ordainak.
 - d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
- 32. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 167. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPLEGATU PUBLIKOEN:**
- a. Ez dute agindu zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizunik izango.
 - b. Agindu zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizuna izango dute.
 - c. Agindu ez zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizuna izango dute.
 - d. Aurreko guztiak faltsuak dira.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

33. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 162. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEK KOLEKTIBOKI BALIATZEN DIREN ESKUBIDE INDIVIDUAL HAUEK DITUZTE:

- a. Grebarako eskubidea, komunitatearentzat ezinbestekoak diren zerbitzuak emango direla bermatu gabe.
- b. Elkarlaneko parte-hartzerako eskubidea lan-baldintzak erabakitzean.
- c. Laneko gatazka kolektiboak planteatzeko eskubidea, kasuan-kasuan aplikatu beharreko legeriaren arabera.
- d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

34. 9/2017 LEGEAREN ARABERA (AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA), KONTRATU TXIKIEN IRAUPENA EZIN DA IZAN EPE HAU BAINO HANDIAGOA:

- a. Sei hilabete, luzatzeko aukerarekin.
- b. Urtebete, luzatzeko aukerarekin.
- c. Sei hilabete, luzatzeko aukerarik gabe.
- d. Urtebete, luzatzeko aukerarik gabe.

35. HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA EGIA?:

- a. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- b. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, diziplina, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- c. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

36. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA OFIZIALAK DIRA:

- a. Gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra.
- b. Euskara da hizkuntza ofizial bakarra.
- c. Euskara eta gaztelania.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

- 37. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREI HONAKO FUNTSEZKO HIZKUNTZA-ESKUBIDE HAUEK AITORTZEN ZAIZKIE:**
- Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
 - Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
 - Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 38. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOAREN JAKINARAZPENEK ETA ADIERAZPENEK:**
- Euskaraz egon beharko dute nahitaez eta gaztelaniaz hautaz.
 - Gaztelaniaz egon beharko dute nahitaez eta euskaraz hautaz.
 - Bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute.
 - Erantzun guztiak okerrak dira.
- 39. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?:**
- Herri-aginteek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.
 - Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko administrazioako gainerako lanpostuetara sartzeko egin daitezen hautaprobetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontutan merezimendu gisa, besteak beste, horren haztaketa lanbide maila bakoitzerako egingo du Administrazioak.
 - Herri-aginteek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 40. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 20. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKO JAURLARITZAK EUSKARAZKO IRAKASKUNTZARAKO ESKUBIDEA GAUZATZEKO JARRIKO DITU:**
- Irakasleria gero eta euskaldunagoa lortzeko bitartekoak.
 - Euskara jakitea derrigorrezkoa ez den irakaspostu edo ikasgelak.
 - Irakasleen egoera ekonomiko gero eta hobea lortzeko bitartekoak.
 - Zuzenak dira b) eta c) erantzunak
- 41. TOKI ADMINISTRAZIOKO LANPOSTUEN HORNIDURARAKO DEIALDIETAN PARTE HAR DEZAKE:**
- Deialdia egiten duen erakundeko funtzionarioek soilik.
 - Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, kasu guztietan.
 - Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, haien parte-hartzea lanpostuen zerrendek ezarritakoaren mende geratzen delarik.
 - Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, haien parte-hartzea aurrekontu plantillek ezarritakoaren mende geratzen delarik.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

42. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANAREN ONDORIOZ LANGILEAK KALTEREN BAT IZATEKO POSIBILITATEA:**
- a. Langileen prebisioa.
 - b. Prebentzioa.
 - c. Lan-arriskua.
 - d. Langileen babesa.
43. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANEAN ERABILITAKO EDOZEIN MAKINA, TRAMANKULU, TRESNA EDO INSTALAZIO DA:**
- a. Lan-ekipamendua.
 - b. Langilearen arriskuen prebentzioa.
 - c. Laneko prebentzioa.
 - d. Lan-arriskua
44. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PREBENTZIO ARLOKO POLITIKAK HONAKOEN PARTE HARTZEAREKIN EGINGO DIRA:**
- a. Enpresaburuak.
 - b. Langileak.
 - c. Autonomia erkidegoko enpresa-erakundeak eta sindikatuak.
 - d. Enpresaburuak eta langileak.
45. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ENPRESABURUAK:**
- a. Langileak laneko arriskuetatik prebenitzeko eskubidea du.
 - b. Langileak laneko arriskuetatik babesteko eskubidea du.
 - c. Langileak laneko arriskuetatik babesteko betebeharra du.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
46. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, PREBENTZIO-EKINTZAREN PRINTZPIOAK DIRA:**
- a. Arriskuak saihestea.
 - b. Saihestezinak diren arriskuak ebaluatzea.
 - c. Arriskuen jatorriaren aurka borrokatzea.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
47. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, PREBENTZIO-ZERBITZUA ERATZEKO ENPRESABURUAK IZENDATUTAKO LANGILEEK:**
- a. Izan beharko dituzte behar besteko gaitasuna, denbora eta tresneria egokia eta behar beste izan beharko dira.
 - b. Enpresaburuak ahalbidetu beharko du izendatutako langileek eskura izatea beharrezko informazioa eta agiriak.
 - c. Ezin izango dute inolako galerarik jasan, lanbide-arriskuak babesteko eta prebenitzeko enpresan duten jardueren ondorioz.
 - d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

48. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA APLIKATZEN ZAIO:

- a. Datu pertsonalen tratamendu guztiz automatizatuari.
- b. Datu pertsonalen tratamendu, neurri batean, automatizatuari.
- c. Fitxategi batean dauden datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

49. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK INTERESDUNARENGANDIK JASO EZ DIRENEAN, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK INFORMAZIO HAU JAKINARAZIKO DIO:

- a. Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak, baina ez haren ordezkariarenak, halakorik badago.
- b. Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, halakorik badago.
- c. Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak, baldin eta osasunari edo datu biometrikoei lotutakoak badira soilik.
- d. Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta tratamenduaren oinarri juridikoa, betiere, botere publiko batek gauzatzen duenean.

50. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK EGIAZTA DIEZAION BERARI BURUZKO DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA EGITEN ARI DEN ALA EZ, BAI ETA, HALA BADA, DATU PERTSONALAK ETA HONAKO INFORMAZIO HAU IRISPIDEAN IZATEKO ESKUBIDEA ERE:

- a. Tratamenduaren helburuak.
- b. Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak.
- c. Datu pertsonalak zer hartzaileri edo zer hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

51. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ADINGABE BATEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA BERE ADOSTASUNEAN OINARRITU AHAL IZANGO DA, BALDIN ETA ADIN HONETATIK GORAKOA BADA:

- a. 13 urte.
- b. 16 urte.
- c. 14 urte.
- d. 18 urte.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

52. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK ERAGINDAKOARENGANDIK JASO DIRENEAN, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA BETE BEHARKO DU, ERAGINDAKOARI OINARRIZKO INFORMAZIO HAU EMANEZ:

- a. Tratamenduaren arduradunaren identitatea, tratamenduaren xedea eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 15.etik 22. artikulura bitarteko eskubideak erabiltzeko duen aukera.
- b. Tratamenduaren arduradunaren eta haren ordezkariaren identitatea, tratamenduaren xedea eta tratatuko diren datuen kategoriak.
- c. Tratamenduaren arduradunaren identitatea, tratamenduaren xedea, tratatuko diren datuen kategoriak eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 15.etik 22. artikulura bitarteko eskubideak erabiltzeko duen aukera.
- d. Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 15.etik 22. artikulura bitarteko eskubideak erabiltzeko duen aukera.

53. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ARAU-HAUSTE ARINTZAT HARTZEN DA:

- a. Informazioaren gardentasun printzipioa edo eragindakoaren informaziorako eskubidea ez betetzea, eskatutako informazio guztia ez emateagatik.
- b. Adingabe baten datuak tratatzea haren adostasuna lortu gabe, horretarako gaitasuna duenean.
- c. Tratamendu-jardueren erregistroa ez jartzea hala eskatu duen datuen babeserako agintaritzaren eskura.
- d. Datuen babeserako ordezkari bat ezartzeko betebeharra ez betetzea, hala egitea eskatu dakiokenean.

54. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, SEGURTASUN DIGITALERAKO ESKUBIDEA:

- a. Interneten ez dago.
- b. Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez bidali eta jasotzen dituzten komunikazioen gainean.
- c. Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez bidaltzen dituzten komunikazioen gainean, baina ez, jasotzen dituztenen gainean.
- d. Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez jasotzen dituzten komunikazioen gainean, baina ez, bidaltzen dituztenen gainean.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

- 55. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOKO ARAU-HAUSTE BAT OTE DAGOEN AZTERTZEKO PROZEDURAREN EPEA:**
- 3 hilabetekoa da.
 - 6 hilabetekoa da.
 - 9 hilabetekoa da.
 - 12 hilabetekoa da.
- 56. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 2. ARTIKULUAREN ARABERA, LEGE HONEN ONDORIOETARAKO, HONAKO HAUXE DA EAE-KO BOTERE PUBLIKOA:**
- EAEko administrazio publiko guztiak eta haien administrazio instituzionalak, baina ez haien erakunde instrumentalak.
 - EAEko sektore publikoa osatzen duten nortasun juridiko independentedun erakunde publikoak, adskripzio-araubidea dutenak, eta sortze-arauan berariaz hala ezarrita duten beste erakunde batzuk.
 - Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 57. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, LAU KIDETIK GORAKO PERTSONA ANITZEKO ORGANOETAN ORDEZKARITZA OREKATUA DAGOELA ULERTUKO DA:**
- Sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez.
 - Sexu bakoitzeko kideek % 50eko ordezkaritza dutenean gutxienez.
 - Sexu bakoitzeko kideek % 60ko ordezkaritza dutenean gutxienez.
 - Erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 58. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARDURA DA:**
- Foru Aldundietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak planifikatu, betearazi eta horiei buruz aholku ematea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, planifikatu, ebaluatu eta horiei buruz aholku ematea.
 - Toki Administrazioan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, planifikatu, betearazi eta horiei buruz aholku ematea.
 - Erantzun guztiak okerrak dira.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

59. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, HONAKO HONEK EMAN BEHAR DU AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUAN PRESTATZEN DIREN ARAUPROIEKTUEI BURUZKO TXOSTENA:**
- Arartekoa.
 - Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
 - Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.
60. **BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANA PROZESU JARRAITU ETA IRAUNKOR BATEN EMAITZA IZAN DA, ETA HONAKO HAUEK PARTE HARTU DUTE PROZESU HORRETAN:**
- Mugimendu feministaren eta Bilboko merkatarien elkarteena.
 - Mugimendu feministaren eta Bilboko auzoetako elkarteena.
 - Mugimendu feministaren eta Bilboko emakumeen elkarteena.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
61. **BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK DIO EZEN INDARKERIAK JASATEN DITUZTEN EDO JASAN DITUZTEN EMAKUMEEN ESKUBIDEA DELA ARRETA ETA BABESA JASOTZEA, GERTATUTAKOA IKERTZEA, EDOTA BEREN SUSPERTZEA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA, ETA ESKUBIDE HORREK GIDATUKO DUELA UDALAREN JARDUERA BEREN-BEREGI:**
- Kontuan hartuz emakume bakoitzaren beharrizan, bizipen eta berezitasun espezifikoak, interseksionalitateak.
 - Erakundeekin, gizarte zibilarekin, gizarte erakundeekin eta, bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduarekin koordinatzeko eta haiekin guztiekin lankidetzan aritzeko tresnak garatuz.
 - Beti ere, berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza moduan.
 - a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
62. **BILBOKO UDALAK ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EGINDAKO V. PLANAK HONAKO PROGRAMA HAUEK EZARTZEN DITU GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO BILBOKO UDALAREN JARDUERAN ETA HAREKIN LOTURA DUTEN EDO HAIEN MENDEKO DIREN ORGANISMO ETA ENTE PUBLIKOEN JARDUERAN:**
- Plangintza kontablea eta estatistikoa.
 - Aurrekontuen planifikazioa eta kudeaketa.
 - Plangintza fiskala eta kudeaketa ekonomikoa.
 - Inbertsioa eta errentagarritasun ekonomikoa planifikatzea.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

63. SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN XEDEAK:

- a. Zehaztua izan beharko du.
- b. Zehaztugabea izan beharko du.
- c. Inespezifikoa izan beharko du.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

64. SEKTORE PUBLIKO KONTRATATZAILEAREN ENTITATEAK ZEHAZTUTAKO BETEBEHARRAK BETETZEN DITUEN OBRA BAT EDOZEIN BITARTEKOREN BIDEZ EGITEA XEDE DUTEN KONTRATUAK:

- a. Obra-kontratuak dira.
- b. Obra-etakida kontratuak dira.
- c. Zerbitzu-etakida kontratuak dira.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

65. OBJETUTZAT EGITEKO PRESTAZIOAK ETA HORIEN ARTEAN JARDUERAREN BAT GAUZATZEA OBJEKTUTZAT DAUZKATEN KONTRATUAK:

- a. Kontratu mistoak dira.
- b. Obra-kontratuak dira.
- c. Hornidura-kontratuak dira.
- d. Zerbitzu-kontratuak dira.

66. MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

- a. Kontratu txikitat joko dira 15.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.
- b. Kontratu txikitat joko dira 50.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.
- c. Kontratu txikitat joko dira 40.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.
- d. Kontratu txikitat joko dira 60.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.

67. KONTRATU TXIKIAK:

- a. Ezin izango zaizkio inoiz zuzenean esleitu jarduteko ahalmena duen ezein enpresariri.
- b. Ezin izango zaizkie inoiz zuzenean esleitu enpresari ez nazionalai.
- c. Ezin izango zaizkie inoiz zuzenean esleitu enpresari espainiarrak ez badira edo Europar Batasuneko naziotasunik ez badute.
- d. Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

68. KONTRATUAREN ESLEIPENDUNA AUKERATZEKO IRIZPIDE BAKARRA PREZIOA DENEAN:

- a. Esleipena berrogeita bost eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
- b. Esleipena ehun eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
- c. Esleipena hamabost eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
- d. Esleipena hogeita hamar eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

69. NOIZ HITZARTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA OBRA-KONTRATUETAN?:

- a. Balio estimatua 2.000.000 euro edo gutxiago denean.
- b. Balio estimatua 150.000 euro edo gutxiago denean.
- c. Balio estimatua 6.000.000 euro edo gutxiago denean.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

70. ZER KASUTAN APLIKATUKO DA LIZITAZIO PROZEDURA NEGOZIAZIOAREKIN?:

- a. Eskaintza egoki bakar bat ere aurkeztu ez den obra-kontratueta.
- b. Enpresari jakin bati baino ezin enkargatu zaizkion obra-kontratueta.
- c. Hornidura-kontratueta merkatu antolatueta egindako erosketen kasuan.
- d. Gizarte zerbitzu oso pertsonalen kontratueta, horien ezaugarrietako bat pertsona gizarte arretaren inguruan sustraituta egotea denean, kontratuaren xedea baldin bada lehendik ere zerbitzu horren onuradun ziren pertsonen arretari jarraipena ematea.

71. ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN ONESPENAK KONPROMETITUTAKO LANPOSTUEI DAGOZKIEN AUKERAKETA PROZESUETARAKO DEIALDIAK EGITEKO BETEBEHARRA EKARRIKO DU...

- a. ... eta are % 5eko gehigarri bat ere.
- b. ... eta are % 10eko gehigarri bat ere.
- c. ... eta are % 3ko gehigarri bat ere.
- d. ... eta are % 7ko gehigarri bat ere.

72. APARTEKO MOTIBOENGATIK BALIABIDEEN ANTOLAMENDU PLANEK BIZILEKUAREN ALDAKETA ERAGITEN DUTENEAN...

- a. ...ez da izango inolako kalte-ordainik eragindako funtzionarioentzat.
- b. ...lehentasuna emango zaio lekualdaketen borondatezkotasunari.
- c. ...ez zaio lehentasunik emango lekualdaketen borondatezkotasunari.
- d. Giza baliabideen antolamendu Plan batek ezin dezake lekualdaketarik eragin.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

73. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 52. ARTIKULUAREN ARABERA, ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA EDO ANTZEKO TRESNA ONARTZEAK, HONAKO BETEBEHAR HAU DAKAR:

- a. Plaza hutsen deialdia egitea, baldin eta plaza horiek betetzeko konpromisorik ez badago enplegu publikoaren eskaintzan edo funtzionarioak kudeatzeko antzeko tresnatan.
- b. Konprometitutako postu-dotazioak atera beharko dira deialdian, eta, hala badagokio, gehienez beste ehuneko hamar gehiago, eta kasuan kasuko hautaketa-prozeduren deialdia egiteko gehienezko epea ere jarri beharko da.
- c. Plaza hutsen deialdia egitea, baldin eta plaza horiek betetzeko konpromisorik ez badago enplegu publikoaren eskaintzan, eta, hala badagokio, gehienez beste ehuneko hamabost gehiago, kasuan kasuko hautaketa prozeduren deialdia egiteko gutxieneko epea ere jarri beharko da.
- d. Konprometitutako postu-dotazioak atera beharko dira deialdian, eta, hala badagokio, gehienez beste ehuneko bost gehiago, kasuan kasuko hautaketa-prozeduren deialdia egiteko gutxieneko epea ere jarri beharko da.

74. EPOETB-EN ARABERA, ZER KUDEAKETA TRESNAREN BIDEZ AURREIKUSI AHAL IZANGO DITUZTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK LANGILEAK HARTZEKO AUKEREN ETA BEHARREN AZTERKETAK?:

- a. Enplegu Publikorako Eskaintzaren bidez.
- b. Giza baliabideen antolamendu Planen bidez.
- c. Lanpostuen Zerrenden bidez.
- d. Langileen birbanaketaren bidez.

75. ZER TRESNAREN BIDEZ EZARRIKO DIRA LANGILE ERREGISTROEN EDUKI MINIMO ERKIDEAK ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO INFORMAZIO TRUKE HOMOGENEOA AHALBIDETZEKO IRIZPIDEAK?:

- a. Sektoreko Konferentziaren hitzarmen bidez.
- b. Ordenantza bidez.
- c. Arautegi Organiko bidez.
- d. Ministro Kontseiluaren Akordio bidez.

76. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, TOKI-KORPORAZIOENTZAT LANGILEEN ERREGISTROAK ERATZEA:

- a. Borondatezkoa da.
- b. Nahitaezkoa da.
- c. Nahitaezkoa da Biztanleria Handiko Udalerrientzat soilik.
- d. Nahitaezkoa da 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrientzat soilik.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

77. ZEIN SISTEMAREN BIDEZ EGIN BEHAR DA TOKI ERAKUNDEEN ZERBITZURA DAGOEN PERTSONALAREN AUKERAKETA?:

- a. Lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistemen bidez.
- b. Lehiaketa sistema bidez soilik.
- c. Oposizio sistema bidez soilik.
- d. Lehiaketa edo oposizio sistemen bidez soilik.

78. HONAKO HONI DAGOKIO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONESTEA, IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZA DUTEN TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOAK AUKERATZEA, PRESTATZEA ETA GAITZEA:

- a. Alkateari.
- b. Tokiko Gobernu Batzarrari, Biztanleria Handiko Udalerrietan.
- c. Estatuari.
- d. Dagokion Autonomia Erkidegoari.

79. TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN LANEGUNA IZANGO DA:

- a. Hileroko zenbaketan, Estatuko Administrazio Zibileko funtzionarioentzat ezarritako bera.
- b. Hileroko zenbaketan, dagokion Autonomia Erkidegoko funtzionarioentzat ezarritako bera.
- c. Urteroko zenbaketan, Estatuko Administrazio Zibileko funtzionarioentzat ezarritako bera.
- d. Urteroko zenbaketan, dagokion Autonomia Erkidegoko funtzionarioentzat ezarritako bera.

80. TOKI ADMINISTRAZIOEK BITARTEKO FUNTZIONARIOAK IZENDA DITZAKETE KARRERAKO FUNTZIONARIOEI DAGOZKIEN EGINKIZUNAK BETETZEKO:

- a. Plaza hutsak daudenean, nahiz eta haiek karrerako funtzionarioekin bete ahal izan.
- b. Haien titularrak modu iraunkorrean ordezkatzeko.
- c. Lan gehiegi edo lan metaketa handia dagoenean gehienez ere bederatzi hilabeteko epean, eta hamazortzi hilabeteko aldian.
- d. Aldi baterako programak betearazteko; programa horiek ezin izango dute eduki bi urtetik gorako iraupena.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

ERRESERBAKO GALDERAK**81. KONSTITUZIOAREN 25.1. ARTIKULUAN ARAUTUTA DAGOEN LEGEZKOTASUN PRINTZPIOAK HONAKO HAU DIO:**

- a. Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezarri, baldin eta gertatu diren unean ez badira delitu, une horretako indarreko legediaren arabera.
- b. Herritar eta botere publiko guztiak legearen mende daude.
- c. Pertsona batek falta bat egiten badu, eta une horretan falta hori arau hauste bat ez bada ere, falta horrengatik zehatu ahal izango dute, baldin eta epaia ematen den unean arau haustea bada.
- d. Pertsona batek arau hauste administratibo bat egiten badu, zehatu egin ahal izango dute horrengatik, nahiz eta arau hauste hori ez zehagarria izan gertatu den unean.

82. KONSTITUZIOAN ONARTUTA DAGOENAREN ARABERA, BILTZEKO ESKUBIDEAREN KASUAN:

- a. Bilera baketsua izango ez dela aurreikusten bada bakarrik izango da beharrezkoa aurretiazko baimena.
- b. Egingo den bileran armak erabiliko badira bakarrik izango da beharrezkoa aurretiazko baimena.
- c. Ez da aurretiazko baimenik beharko bilera baketsuak eta armarik gabeak egiteko.
- d. Aurretiazko baimena beharrezkoa izango da eskubidea egikaritzeko.

83. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ZEIN PROZEDURATAN DUTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK EBAZTEKO BETEBEHARRA?:

- a. Salaketagatik ofizioz hasten diren prozedura guztietan bereziki.
- b. Oro har, ofizioz hasten diren prozedura guztietan.
- c. Prozedura guztietan, horien hasteko modua edozein dela ere.
- d. Prozedura guztietan, horien amaitzeko modua edozein dela ere.

84. UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BILBOKO UDALEKO UDALBATZAK ONDORENGOEN EKIMENEZ HARTUKO DITU ERABAKIAK:

- a. Alkatea, Bozeramaileen Batzordea, zinegotziak eta talde politikoak.
- b. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak, talde politikoak eta herri ekimena.
- c. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak eta gainerako zinegotziak.
- d. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak eta herri ekimena.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

- 85. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PUBLIKO EGIN EZ DEN PROZEDURA BATEN INSTRUKZIOAN IKUSTEN BADA BADIRELA BESTE PERTSONA BATZUK ESKUBIDE EDO INTERES LEGITIMO ETA ZUZENEKOEN TITULAR DIRENAK, ESPEDIENTEAN IDENTIFIKATUAK ETA PROZEDURAREN EBAZPENAK UKI DITZAKEENAK:**
- a. Prozedura izapidetzen jarraituko da.
 - b. Prozedura izapidetzen ari dela komunikatuko zaie pertsona horiei.
 - c. Legezko modu batean jakinaraziko zaie prozedurako interesdun guztiei.
 - d. a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 86. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEK HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:**
- a. Karrerako funtzionario-izaeraren mugiezintasunerako eskubidea.
 - b. Beren maila profesionalari dagozkion funtzio eta zereginak benetan eta eraginkortasunez betetzeko eskubidea.
 - c. Karrera bertikalean eta barne-sustapenean aurrera egiteko eskubidea lege honetan ezarritakoaren arabera.
 - d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
- 87. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HERRI-AGINTEEK ERABILI BEHARREKO INPRIMAKI EDO IDAZKI-EREDU OFIZIAL GUZTIEK EGON BEHARKO DUTE:**
- a. Soilik euskaraz idatzita.
 - b. Bi hizkuntzetan idatzita.
 - c. Soilik gaztelaniaz idatzita.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 88. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NOR KONTSULTATUKO DU GOBERNUAK, ERREGELAMENDUZKO ARAUEK 6. ARTIKULUAN ZERRENDATUTAKO GAIK ARAUTZEKO?:**
- a. Enpresaburuak.
 - b. Langileak.
 - c. Ordezkaritza handieneko sindikatu-erakundeak eta enpresaburuen erakundeak.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 89. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA EZ ZAIE APLIKATZEN:**
- a. Datuen babeserako 2016/679 (EB) Erregelamendu orokorrak araututako eremuko tratamenduei.
 - b. Gai sailkatuen babesari buruzko araudien eraginpean dauden tratamenduei.
 - c. Hildakoei buruzko datuen tratamenduei, kasu guztietan.
 - d. 3/2018 Lege Organikoa kasu horietan guztietan aplikatzen da.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

- 90. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 3. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO HAUEK DIRA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EAE-KO BOTERE PUBLIKOEN JARDUERA GIDATU ETA BIDERATU BEHAR DUTEN PRINTZPIO OROKORRAK:**
- Tratu-berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatzea.
 - Aukera-berdintasuna.
 - Lankidetzeta eta koordinazioa eta nazioartekotzea.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 91. HORNIDURA-KONTRATUAK, BALIO ZENBATETSI HAU EDO HANDIAGOA DUTENAK, ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN PEAN EGONGO DIRA:**
- 10.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.
 - 143.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.
 - 100.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.
 - 50.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.
- 92. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRI BATEAN, ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA HONEK ONETSI BEHAR DU:**
- Udalbatzak.
 - Langile Batzordeak.
 - Alkateak.
 - Tokiko Gobernu Batzarrek.
- 93. BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANA ANTOLATUTA DAGO AGINTALDIRAKO HELBURUAK, AURREIKUSPENAK ETA KONPROMISOAK GARATU ETA BETETZEAREN INGURUAN. NON ZEHAZTEN DIRA HELBURU, AURREIKUSPEN ETA KONPROMISO HORIEK?**
- Bilboko Udalaren Aginte-Planean (2011-2015).
 - Bilboko Udalaren Aginte-Planean (2015-2019).
 - Bilboko Udalaren Aginte-Planean (2019-2023).
 - Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 94. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, LANPOSTUEN ZERRENDAK EGITEKO JARRAITU BEHARREKO ARAUAK EZARTZEAREN ARDURA HONENA DA:**
- Administrazio publiko bakoitzarena.
 - Dagokion Autonomia Erkidegoarena.
 - Dagokion Lurralde Historikoko Foru Diputazioarena.
 - Estatuarena.

ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN DIALDIA

95. MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

- a. Kontratu bat zatikatu daiteke haren zenbatekoa murrizteko.
- b. Kontratu bat zatikatu daiteke publizitate-betebeharrak saihesteko.
- c. Kontratu bat ez da zatikatu ahal izango esleipen prozedurari dagozkion betebeharrak saihesteko.
- d. Sektore publikoko kontratuak beti zatikatu behar dira zenbateko edo balio ekonomiko jakin batera iristen baldin badira.

Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

1. ABIZENA / 1º APELLIDO		LEP 2022 (OPOSIZIO - LEHIAKETA)	
2. ABIZENA / 2º APELLIDO			
ARLO JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIA			
IZENA / NOMBRE		NAN / DNI	
DATA / FECHA		KIDEGO EDO LANPOSTUA / CUERPO O PLAZA	

NAN / DNI											
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4
5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6
7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9

SINADURA / FIRMA



Sinatu laukitik atera gabe / Firmar sin salir del cuadro



honela ez markatu
así no marque

Azterketa eredia / Modelo de examen A ☒ B ☐

1	EZEZT.	A	B	C	D
2	ANULAR	A	B	C	D
3	EZEZT.	A	B	C	D
4	ANULAR	A	B	C	D
5	EZEZT.	A	B	C	D
6	ANULAR	A	B	C	D
7	EZEZT.	A	B	C	D
8	ANULAR	A	B	C	D
9	EZEZT.	A	B	C	D
10	ANULAR	A	B	C	D
11	EZEZT.	A	B	C	D
12	ANULAR	A	B	C	D
13	EZEZT.	A	B	C	D
14	ANULAR	A	B	C	D
15	EZEZT.	A	B	C	D
16	ANULAR	A	B	C	D
17	EZEZT.	A	B	C	D
18	ANULAR	A	B	C	D
19	EZEZT.	A	B	C	D
20	ANULAR	A	B	C	D

21 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☒	☐
22 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☐	☒
23 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☒	☐
24 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☒	☐	☐
25 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☒	☐	☐
26 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☒	☐
27 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☒	☐	☐
28 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☒	☐	☐	☐
29 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☒	☐	☐	☐
30 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☒	☐	☐	☐
31 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☐	☒
32 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☒	☐	☐
33 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☒	☐
34 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☐	☒
35 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☒	☐	☐	☐
36 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☒	☐
37 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☐	☒
38 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☒	☐
39 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☐	☒
40 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☒	☐	☐	☐

41 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☒	☐
42 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☒	☐
43 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☒	☐	☐	☐
44 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☐	☒
45 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☒	☐
46 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☐	☒
47 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☐	☒
48 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☐	☒
49 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☒	☐	☐
50 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☐	☒
51 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☒	☐
52 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☒	☐	☐	☐
53 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☒	☐	☐	☐
54 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☒	☐	☐
55 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☐	☒
56 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☒	☐
57 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☒	☐	☐	☐
58 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☒	☐	☐
59 ▶	A	B	C	D
EZEZT.	☐	☐	☐	☒
60 ▶	A	B	C	D
ANULAR	☐	☐	☒	☐

61		A	B	C	D
EZEZT.		☐	☐	☐	☒
62		A	B	C	D
ANULAR		☐	☒	☐	☐
63		A	B	C	D
EZEZT.		☒	☐	☐	☐
64		A	B	C	D
ANULAR		☒	☐	☐	☐
65		A	B	C	D
EZEZT.		☐	☐	☐	☒
66		A	B	C	D
ANULAR		☐	☐	☒	☐
67		A	B	C	D
EZEZT.		☐	☐	☐	☒
68		A	B	C	D
ANULAR		☐	☐	☒	☐
69		A	B	C	D
EZEZT.		☒	☐	☐	☐
70		A	B	C	D
ANULAR		☐	☐	☐	☒
71		A	B	C	D
EZEZT.		☐	☒	☐	☐
72		A	B	C	D
ANULAR		☐	☒	☐	☐
73		A	B	C	D
EZEZT.		☐	☒	☐	☐
74		A	B	C	D
ANULAR		☐	☒	☐	☐
75		A	B	C	D
EZEZT.		☒	☐	☐	☐
76		A	B	C	D
ANULAR		☐	☒	☐	☐
77		A	B	C	D
EZEZT.		☒	☐	☐	☐
78		A	B	C	D
ANULAR		☐	☐	☒	☐
79		A	B	C	D
EZEZT.		☐	☐	☒	☐
80		A	B	C	D
ANULAR		☐	☐	☒	☐

	A	B	C	D
81 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
82 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
83 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
84 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
85 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
86 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
87 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
88 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
89 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
90 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
91 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
92 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
93 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
94 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
95 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
96 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
97 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
98 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐
99 ▶				
EZEZT.	☐	☐	☐	☐
100 ▶				
ANULAR	☐	☐	☐	☐